

1 AISIALDIAREN DEFINIZIOA ETA BILAKAERA

1.1. ZEHAZTAPEN KONTZEPTUALAK: AISIALDIAREN DEFINIZIOA ETA AISIALDIAREN PEDAGOGIAK

Aisiaren inguruko azterketa bat abiatzeko orduan, lehendabiziko zailtasuna aisiaren definizioa bera da. Intuizioz denontzako da nahiko argi aisia eta aisialdia zer den, baina zehaztasunez adierazi nahi badugu, ez dugu lortzen behar adinako argitasunik.

Horrela, aisialdiaren teoriko eta pentsalariak definizio ugari proposatu dute eta eztabaida amaiezinak burutu ere, baina ez dute lortu beharrezkoa den adostasun kontzeptuala euren ikerketa-objektua zehaztasunez mugatzeko. Izan ere, giza eta gizarte errealtateko beste hainbat kontzeptuekin gertatzen den bezala, esanahia aldakorra da testuinguru historiko eta kulturalaren arabera, baita definizioaren egileak daukan pentsamoldearen arabera ere.

Hala eta guztiz ere, eztabaida teorikoetan sartzea azterketa honen helburua ez dela kontuan hartuz, beharrezkoa dugun argibide terminologikoa lortuko dugu Josep M^a Puig Rovira eta Jaume Trillas¹ katalanak proposatzen duten sailkapen kontzeptuala erabiliaz. Autore horien arabera, aisiaren inguruko definizioak sailkatu daitezke hiru dimentsioren arabera: 1) aisiaren denbora. 2) aisiaren bizipen subjektiboa. 3) aisiaren ekintza edo jarduera motak. Azter ditza-gun, labur bada ere, dimentsio horietako bakoitzak nolako ekarpena egiten dion aisiaren definizioari.

1) Aisiaren denbora. Aisiak eskatzen du, lehenengo eta behin, lanarekin edo bestelako betebeharrekin okupatuta ez dagoen denbora bat. Horrexegatik, intui-

(1) Puig Rovira J.M., Trillas J. *La pedagogía del ocio*. Laertes Argitaletxea. Bartzelona, 1996.

zioz, aisiaren aurkari nagusitzat lana edo laneko denbora hartzen dugu: aisiak laneko betebeharretatik libre eta norberaren esku dagoen denbora da. Askotan sinonimotzat jotzen badira ere, aisia eta denbora libre ez dira zertan sinonimoak izan behar, denbora libre izatea beharrezkoa bai, baina nahikoa ez den baldintza baita aisiarako; zeren, aisia al da laneko denboratik kanpo daukagun denbora guztia? Aipaturiko bigarren dimentsioari erreparatuz gero ezetz erantzun beharrean gaude.

2) Aisiaren bizipen subjektiboa. Izan ere, aisiak beste baldintza batzuk eskatzen ditu. Aisiaz hitz egiten dugu gizakiak autonomia osoz eta gozamina, dibertimendua, atsedena edo garapen pertsonalarekin lotuta dagoen jarrera subjektibo batekin, jarduera batzuk egitea erabakitzen duenean. Aisia da denbora libre gehi askatasun pertsonala: denbora libre askatasunez bizitzea².

Aisiak eskatzen du modu autonomoan erabakitzea zertan okupatuko den denbora libre baina, horretaz gain, erabakitako jarduerak egiten diren bitartean subjektuaren esku egongo da jarduera bera (subjektibitatearen adierazpen libre eta sortzailea), hala nola, aktibitatea bertan behera uztea gozamen, atsedena edo dibertimendu nahikoa lortzen ez bada.

Horrela, Puig eta Trillas-i ondorengo hau iruditzen zaie aisiaren definizio egokia: aisia da denbora libre bat zeinetan, edozein gauza eginda ere, nagusitzen diren jarrerak dira aukeraketa autonomoa, burutzapen libre eta gozamina, atsedena eta dibertimenduarekin lotuta dauden behar pertsonalak asetzea.

Aisia = DENBORA LIBREA + ASKATASUNA + GOZATU

3) Aisiaren ekintza edo jarduera motak. Dena den, aisiaren definizio zehatzago hori osatzeko hirugarren dimentsio bat kontuan hartu behar dugu: aisialdian burutzen diren jarduerak edo ekintzak. Puig eta Trillas-en ustez, jarduerak aisiaren bigarren mailako elementu definitzaileak dira; edozein jarduera aisialdiko jarduera izan baitaiteke okupatzen duen denbora sozialaren arabera eta nagusitzen den jarrera subjektiboaren arabera³. Dena den, bigarren mailako elementu definitzailea izanda ere, aisialdiko jarduerak kontuan hartu beharrekoak dira aisialdiaren bizipena jarduera zehatz batzuen bidez gauzatzen baita.

Aisialdiaren jarduerak sailkatzeko oso erabiliak dira Dumazedier eta Rippert-ek proposatu zituzten ondorengo lau jarduera-multzo:

- 1) Ariketa fisikoarekin zerikusia duten jarduerak (kirolak, ibilaldiak, txangoak...)
- 2) Esku-lanekin zerikusia duten jarduerak. Hau da, zerbait egitera edota produzitera bideratuta dauden jarduerak (brikolajea, lorazaintza...)
- 3) Kultur jarduerak (elitistak zein herrikoiak, partehartzaileak zein pasiboak): irratia, telebista, zinea, antzerkia, musika, dantza, hitzaldiak, liburuak, etab...

(2) Ibidem (orr. 54-55)

(3) Ibidem (orr. 20)

- 4) Jarduera sozialak edo kolektiboak. Harreman pertsonalak lantzerantz bideratuta dauden jarduerak (familia barruko elkarbizitza, lagunarteko poteoa, soziedadeak, kafeak eta terrazak, jaiak,...)

Gure aldetik, lau multzo horiekin batera eta haurren eta gaztetxoaren aisiaz hitz egingo dugula kontuan hartuz, bosgarren jarduera-multzo bat bereiztuko dugu:

- 5) Jarduera ludikoak, jolas indibidualak (bideo kontsolak eta bestelako jolas-tresnak) eta jolas kolektiboak (mahaikoak zein kalekoak: ezkutaketetan, harrapaketan, soka,...)

Esan bezala, aisiaren definizioari begira, jarduera horien garrantzia aisiaren bizipena ahalbidetuz datza. Baina, jarduera beraren edukia baino garrantzi handiagoa da jarduera bakoitzak pertsonarentzat hartzen duen esanahia eta denbora. Edozein jarduera, beraz, betebeharretatik at eta gozamina nagusitzen den neurrian aisialdiko jarduera kontsidera daiteke.

Azkenik, aisiaren definizioari dagokion atal hau amaitzeko, bereiztu nahi genituzke normalean sinonimo bezala erabiltzen diren zenbait kontzeptu. Horrela argi utziko dugu, azterlan honetan, zeri erreparatzen diogu ondorengo termino bakoitza erabiltzen dugun bakoitzean:

Denbora libre: lanarekin edo bestelako betebeharrak finkoekin okupatuta ez egoteagatik norberaren esku dagoen denbora.

Aisia edo aisialdia: subjektibitatearen adierazpen librearen bidez, atsedena hartzea, ondo pasatzea edo zaletasun bat lantzea helburu duen denbora libre (denbora libre + askatasuna + gozatzea).

Aisialdi antolatua: talde edo erakunde baten eskutik, egun eta ordutegi finkoak dituzten aisialdirako eskaintzak.

Aisialdi ez antolatua: modu informaleko batez kalean edo etxean burutzen diren aisialdiko jarduerak.

Aisialdi hezitzailea: modu esplizituan gozamina eta pertsonaren garapen libre helburu duen aisia.

Aisialdiko taldeak: modu esplizituan gozamina eta pertsonaren garapen libre bultzatzen duten taldeak.

Aisialdiko jarduerak: modu esplizituan gozamina eta pertsonaren garapen libre helburu duten jarduerak.

1.1.1. Aisialdiaren Pedagogiak

Denbora, bizipen subjektibo libre eta gozaminezko garapen pertsonala izango dira, beraz, aisia definitzeko erabiliko ditugun erreferentzia nagusiak. Horrela bereiz ahal izango dugu aisiarekin lotuta dauden jarduerak eta, nahiz eta denbora librean burutu, aisiarekin zerikusia ez duten jarduerak. Adibide modura eta gaurkotasun handia duen adibide bat erabiltzearen, denbora libre eman dezakegu geure formazio profesionalean osagarriak diren ikastaroak egiten; baina ez jarduerak, ez helburuak ezta bizipen subjektiboak ere (seguru asko) ez dute

loturarik izango gozamina, dibertimendua edo atsedenarekin; hau da, aisiaren jarrera subjektiboekin eta, ondorioz, zeregin horietan ematen dugun denbora ez dugu kontsideratuko geure aisialdia.

Ikastaroak, akademiak eta abarrak, beste aldetik, jarduera hezitzaileak dira eta horrek eramaten gaitu azterketa honetan funtsezkoa izango den beste bereizketa kontzeptual batetara: alde batetik, "aisialdi hezitzailea" eta, bestetik, "instrukzioa denbora librean".

"Instrukzioa denbora librean" esan nahi du denbora librea aprobetxatzea formazio akademikoa eta profesionala osatzeko. Jarduera instruktiboetan oinarrituriko denbora libre oso egituratua, antolatua eta formala izango da. Eta, ondorioz, jardueren edukian zein jardueren bizipen subjektiboan, hurbilago egongo da bete-beharreko lanerako denboratik aisiarako denboratik baino.

"Aisialdi hezitzaileak", aldiz, esan nahi du denbora librean gozamina, dibertimendua edota garapen pertsonala lantzea modu esplizituan. Horrela, bete-betean agertuko zaigu ondorengo dimentsio hauetariko bat edo bat baino gehiago: dimentsio ludikoa, kognoszitiboa, etikoa eta soziala (gogoeta, harremanak, ekimena, konpromiso kolektiboa, inguru hurbileko ezagutza,...).

Denbora libreko instrukzio akademikoa eta aisialdi hezitzailearen arteko funtsezko bereizketa egin eta gero, oso interesgarria da bereiztea ere aisialdi hezitzailearen baitan aurkitu daitezkeen hiru pedagogia edo heziketa modu ezberdin. Izan ere, Jaume Trillas-ek ondorengo hiru aisialdiko pedagogia hauek bereiztuko ditu ezaugarri teorikoak definitzen dituen sailkapen batean: proiektuaren pedagogia, jardueraren pedagogia eta emaitzaren pedagogia⁴.

1) PROIEKTUAREN PEDAGOGIA. Ondorengo ezaugarri hauek dira aisialdiko pedagogia honekin lotu daitezkeenak:

- Taldea eta hartu-eman pertsonalen garrantzia.
- Proiektu hezitzaile baten existentzia (garapen pertsonala eta soziala helburu duena).
- Proiektuaren definizioa eta garapena modu partehartzailean burutzea.
- Konprometitua eta konpromisoaren sortzailea: intentsitate altuko pedagogia da, behin-betiko eragin iraunkorra lortu nahi duena. Hezitzaile eta begiraleei ere konpromiso sendoa eskatzen die.
- Elkarbizitza eta esperientzia praktikoaren bidez nortasun pertsonalaren garapen integrala bilatzen da.

Eskaut taldeak eta aisialdirako klubak dira aisialdiko pedagogia honen adibide paradigmaticoak. Beti ere, ahaztu barik ezaugarri idealak definitzen dituen sailkapen teoriko baten aurrean gaudela eta, ondorioz, zuhurtziaz gogoratu behar dugu, batetik, ezaugarri horiek ez direla eskaut taldeen edo aisialdiko klubaren eskusiba, beste mota bateko aisialdiko taldeetan ere aurki baitaitezke.

(4) Trillas, J. *Tres pedagogías del tiempo libre*. Monitor Educador. 72. Zbk. (orr. 8-27)

Bestetik, eskaut talde eta aisialdiko klub asko izango dira teorian eta idearioan eredu horren ezaugarriak agertzen dituztenak baina praktikan betetzen ez dituztenak.

2) JARDUERAREN PEDAGOGIA

- Jarduerak berak du garrantzia eta, horrekin batera, jolastokia edo jolaserako ekipamenduak.
- Baliabideak eta ekipamenduak definitzen du egiten den jarduera. Subjektua erabiltzailea da eta "aukeratzeko" askatasuna du jarduera, jolas edo tailerra ezberdinen artean.
- Subjektua erabiltzailea den neurrian, konpromiso, ardura eta partaidetza gutxiago eskatzen zaio. Ondorioz, ez du erakunde edo talde horren partaide izatearen sentimendua.
- Intentsitate baxuko pedagogia da, konpromiso gutxiago eskatzen dio hezitzaileari zein subjektu hartzaileari.
- Funtzio ludikoa du, dibertitzea eta gozatzea da helburu nagusia.
- Subjektu hartzaileen zaintza eta babesa da pedagogia honek betetzen duen beste funtzio bat.

Pedagogia honen adibiderik argiena ludotekak dira, baita ikastetxeek eta udalek antolatzen dituzten zenbait jarduera ere (tailerrak, jai-egunak...), azkenik, udaleku ireki eta udaleku itxien antolaketa ere, batzutan, eredu honen arabera egiten da. Bestaldetik, *Happy-parks*, *kamelots* eta zerbitzu-enpresen eskaintza komertziala ez dago hain urruti eredu honetatik. Hala ere, ludoteketan edo udaleku itxietan, espazio komertzial horietan baino asmo pedagogiko garbiago bat dago.

Lehen aipatu bezala, errealitatearen aniztasunak sailkapen teoriko honen mugak gainditzen ditu (hemen aipatzen diren batzuk gertuago egon daitezke proiektuaren pedagogiatik jardueraren pedagogiatik baino eta alderantziz).

3) EMAITZAREN PEDAGOGIA

Eredu honen adibideak ondorengo hauek lirateke: kirol taldea, abesbatza, dantza taldea, antzerki taldea edo zaletasun baten inguruan sortutako taldeak (maketak, rol-jokoak, filatelikoak,...)

- Espezialitate batean trebatzea da helburua. Ondo pasatzea garrantzitsua da baina jardueraren edukian hobekuntza lortzea da helburu nagusia.
- Proiektuaren pedagogian bezala, inplikazioa, jarraikortasuna eta konprometuz iraunkorra eskatzen du. Subjektua ez da erabiltzailea aktorea baizik.
- Ikasketa aktiboan oinarritzen da (entrenatzea, entseiatzea...), beti ere emaitzak hobetzeari begira.
- Esfortua eta diziplina garrantzitsuak dira baina dibertimendurekin batera. Ez da beti dibertigarria baina bai pozgarria emaitzak onak badira.
- Gehiegizko lehiaren arriskua dute, harremanak eta prozesua gaiztotuz.

- Gizarte zibilaren baitatik sortutako taldeak izaten dira (zaletasun bat lan-
teko sortuak).

Saillkapen teoriko guztiak errealtatearen konplexutasuna modu ordenatuago batez antzeman ahal izateko proposatzen diren tresna heuristikoak dira. Zentzu horretan, hiru aisialdiko pedagogia hauen saillkapena, bere mugak eta arrisku sinplifikatzaileak baditu ere, oso lagungarri egin zaigu aisiaren arloan gaur egun dauden ekimen eta jarduera mota ezberdinak aztertzeko orduan.

Horrekin batera, beharrezkoa dugu hurbilpen sinkroniko hori hurbilpen diakronikoarekin osatzea. Horrela, sailkaturiko aisialdiko pedagogia edo heziketa-modu horietara historikoki nola iritsi den hobeto ulertu ahal izateko, hurrengo atalean aisiaren arloak azkeneko hamarkadetan nolako bilakaera izan duen ikusiko dugu.

1.2. AISIALDI HEZITZAILEAREN HASTAPENAK ETA BILAKAERA

Bi faktore mota kontuan hartu behar ditugu aisiaren arloak nolako garapen historikoa izan duen deskribatzeko orduan. Batetik, gizarte-arloko faktore orokorrak (demografikoak, ekonomikoak, kulturalak, hirigintzakoak...). Bestetik, hezkuntza arloko faktoreak edo faktore pedagogikoak (pedagogiaren baitan garatzen diren ikuspegi teorikoak eta tresna metodologiak aisiaren arloan heziketa-bide bat sortzeko). Ikus ditzagun banan-banan faktore-multzo bi hauek.

1.2.1. Gizarte-arloko faktore nagusiak

Gizartearen arloko elementu asko dira eragin zuzena daukatenak gure denboraren antolaketan eta denboraren bizipen subjektiboan. Aisialdi hezitzailea haurren eta gaztetxoaren denbora librean garatu dela kontuan hartuz, ingurune edo habitatean egondako aldaketak, eskoletan gertatutakoak eta familien egituraren egon-dakoak iruditzen zaizkigu azpimarragarrienak.

Habitatari dagokionez, XX. mendearen hasieratik, hirietan bihurtu zen bereziki beharrezkoa aisiaren arloan heziketa-bide bat sortzea. Horrela, aisi naturalago eta osasuntsuago bat antolatzeke taldeak eta klubak sortzen dira hirietako kaleak ingurune ez-egokia eta arriskutsua bihurtzen denean haurren osasunerako, gozamenarako eta harremanetarako.

Gaur egun ere, gizartearen urbanizazioa aurrera doan neurrian, begi bistakoa bihurtzen da, bereziki erdiguneko auzoetan, kalea gero eta espazio ez-erproposagoa dela jolaserako. Haurren aisiarako galtzen ari den espazioa da kalea. Izan ere, garraiorako azpiegiturak eta trafikoa gora doazen neurrian kotxeek, aparkatuak edo martxan, jolaserako aukerak murriztu dituzte. Zentzu horretan, aisi hezitzailearen talde eta erakunde askok kalearen ez-egokitasunari eta galerari erantzun alternati-
boa ematen diote (lokalak eta natura).

Bigarren arloari dagokionez, eskola eta familia haurtzaroaren zaintzarako eta babeserako gizarte-erakunde nagusiak dira gizarte modernoetan. Horrela, gizararen antolaketa eta egiturari begira, haurrek bi rol nagusi betetzen dituzte: semea edo alaba izatea eta ikaslea izatea. Ikastetxeak, tradizionalki, ez du eskuhartze handirik izan haurren aisialdian; izan ere, eskola-orduak aisiarako orduen antitesia dira, lanerako orduen parekoa. Familia, aldiz, talde afektiboa eta ekonomikoa izateaz gain aisiarako taldea ere bada. Baina, azkeneko hamarkadetan familiaren egiturari eragiten dioten faktore batzuek (beherakada seme-alaben kopuruan, familia nuklearraren nagusitasuna, emakumearen integrazioa lan-munduan, lanari eskaintzen zaion denbora igotzea, norbanakoak bere autonomia pertsonala bilatzea,...) familia barruko harremanak intentsitate baxuago bat hartzea eragin dute⁵. Horrela, udaleku, kanpamentu, ludoteka eta aisialdiko taldeek lehenago kalean edo familia barruan betetzen ziren funtzioak betetzen dituzte. Gurasoentzat ere garrantzi handikoa den beste funtzio bat betetzen dute: laneko ez den denbora bat liberatzea.

Azkenik, aisialdi hezitzailearen garapen historikoan kontuan hartu beharreko beste elementu bat: gizarte modernoan gero eta gehiago hedatzea denbora libreko zeregin pasiboak, indibidualistak eta alienatzaileak. Telebista, teknologia berriak, publizitatea eta kontsumoa kezka-iturri bihurtu dira hezitzaileentzat zein gurasoentzat, eta horrek eskuhartze hezitzaile baten premia areagotu du⁶.

1.2.2. Hezkuntza-arloko faktore pedagogikoak

Aisiaren arloak nolako garapen historikoa izan duen deskribatzeko orduan, bigarren faktore-multzo garrantzitsu bat aipatu dugu: hezkuntza arloko faktoreak edo faktore pedagogikoak. Izan ere, aldaketa garrantzitsuak gertatu dira azkeneko hamarkadetan haurren hezkuntza ulertzeko moduari dagokionez eta, aldaketa horietako batzuk, modu nabarmenean bultzatu dute aisiaren pedagogia.

Lehenengo eta behin, hezkuntza kontzeptuak izendatzen duena zabaldu egin da; gaur egun, izendapen topikoak dira hezkuntza ez-formal eta hezkuntza informala, heziketan eragina duten beste erakunde eta arloei erreferentzia egiteko. Tradizionalki hezkuntza kontsideratzen zena (familia eta eskola) izugarri zabaldu da eta, egun, ez du inork ukatzen komunikabideek, udalekuek, aisialdiko taldeek edota ludoketek daukaten dimentsio hezitzailea.

Bestaldetik, hezkuntza-sistema formalak tradizionalki erabateko lehenetsua eman dio pertsonaren dimentsio kognitibo edo intelektualari, bestelako giza dimentsioak (afektibitatea, hartu-eman pertsonalak, izpiritualtasuna, adierazpen fisikoa eta artistikoa...) landu gabe utziz. Horrekin lotuta, betiko kezka eta erronka izan da hezkuntzaren arloan hezkuntza integrala edo orobatzailea bultzatzea; giza ahalmen guztien sustapen eta garapen orekatua bultzatuko duena. XX. mendean zehar hezkuntzaren arloan izandako beste aldaketa garrantzitsu bat heziketa integralaren inguruko kezkak hartu duen protagonismoa izan da eta, horren


(5) Puig Rovira J.M., Trillas J. op. cit. Orr. 65.

(6) Trillas-en ustez, bitarteko moderno batzuei egiten zaien kritika oso sinplifikatzailea, anakronikoa eta idilikoa da eta, ondorioz, ez da asmatzen bitarteko horiek integratzen jardueraren hezitzailean: "Aisi hezitzailean nagusitzen den gogo boluntaristarekin eta bitarteko artesanalekin zaila izango da indargabetzea modu inoan eta puritanoan kritikatzeko diren aisialdiko jarduerak" Ibidem (orr. 71)

eskutik, hezkuntza-erakunde berrien agerpena. Hezkuntzaren erakunde nagusiak (eskola) bazterrean eta landu gabe lagatzen badiu aipaturiko giza ahalmenak beste hezkuntza-erakunde eta espazio batzuk sortuko dira dimentsio horiei erreparatzeko. Izan ere, aisialdi hezitzailearen arloko taldeak izango dira hezkuntza integralaren helburuak bereganatuko dituztenak.

1.2.3. Bilakaera historikoaren zertzelada nagusiak

Azterketa honen kontestualizazio bezala interesgarria iruditu zaigu azkeneko hamarkadetan aisialdi hezitzailearen arloko ekimenak nolako bilakaera orokorra izan duen deskribatzea. Esan bezala, deskribapen honek ez du xede azterketa historiko zehatza eta sakona egitea, baizik eta hurrengo ataletan landuko diren elementuak bilakaera orokor batean kokatzea. Bilakaera horren zertzelada nagusiak irudikatzen ditu, batera erabiliko ditugu dokumentazio-lanean bildutako informazioa eta, egindako elkarrizketetan, aisi hezitzailean aritutakoek igorri dizkiguten inpresioak eta bizipenak.



Aisialdiko talde hezitzaileen lehenengo ekimenak XIX. mendearen amaiera-koak eta XX. mendearen hasierakoak badira ere (udalekuen antolaketa eta Eskaut mugimendua), gehiago interesatzen zaigun iragan hurbilari dagokionez, 70. hamarkadan kokatu behar ditugu egungo aisialdi hezitzailearen hastapenak:

a) **70. hamarkada.** Garai hartan aisialdiko taldeetan eta aisialdiaren inguruan murgiltzen zirenek panorama eskasa irudikatu dute orokorrean. Aisialdiari dagokionez "ezer ez zegoela" da gehien errepikatu den ideia. Askok azpimarratu duten moduan, garai hartako kezka eta beharrak aisialditik kanpo kokatzen

ziren –lan munduan batez ere– eta denbora librearen pretentsio handirik gabeko denbora zen.

Haur eta nerabeen kasuan, **aisialdia kalean ibiltzeko denbora zen**: jolasteko, lagunekin egoteko edota abenturak asmatzeko denbora zen. Jarduera horiek eskolak betetzen ez zuen denbora hartzen zuten, horren inguruan kezka eta behar bezirik sumatu gabe. Garai hartako aisialdiaren inguruan zeuden helburuak eta nahiak haurrak lagunak egitearekin eta auzoan egotearekin lotuta zeuden. Kaleko jarduera horietaz aparte, beste bi esparru edota agente nagusitzen ziren garai hartan: alde batetik elizaren inguruan sortutako taldeak eta, bestetik, kirola eta zenbait kultur jardueraren inguruan garatutako ekimenak.

Eliza inguruan eta bestelako ekimen eta taldeen artean, udaleku eta kanpamentuen antolaketa abiatzen da. Hasiera batean, helburu nagusia ingurugiro naturalean antolatutako aktibitateak egitea da. Ekimenak, beraz, urtean behingoak dira eta ez dute urte osoko jarraikotasunik edo prozesu-izaerarik.

Hasierako udaleku eta kanpamentu haien eredu pedagogiko eta organizatibolari dagokionez, garrantzi handikoa izan zen Eskaut Mugimenduaren eragina: taldeen arabera egituraketa, taldeko partaidearen izatearen garrantzia, zereginen banaketa (garbiketa, sukaldea...). Aktibitate ludikoen egitaraua oraindik ez da egiten haurren interesguneen arabera, egonaldiaren egun bakoitza klasiko bat da: olinpiadak, bizi-iraupenaren eguna, gurasoen eguna, rallyak... Baliabide gutxi daude eta aktibitateak sinpleak dira positiboki baloratzen den apaltasun baten barruan⁷. Begiraleak gazteak eta boluntarioak dira, euren artean ilusioa eta intuizioa dira nagusi eta ez dago espezializaziorik, apaiz baten koordinaziopean egoten dira eta denetarik egiten dute.

Udaleku eta kanpamentuek, hasi-hasieratik, oso ezaugarri hezitzaile esanguratsuak dituzte, besteak beste: intentsitate handiko esperientzia, egunerokotasuna hezteko aukera, ohikoa ez den ingurune ezberdina ezagutzea, behin-behineko urrunketa familiarekiko, kanpoko baldintzapean gutxi izatea (eskolak dituenekin alderatuta)...

Elizaren babesean bultzatutako taldeek, katekesi edota doktrinaz aparte eta urtean behingo udalekuetatuz gain, zerbait iraunkorragoa egitea zuten kezka. Hori dela eta, haurren heziketa prozesua garatzeko asmoarekin zenbait ekintza prestatzen ziren. Horiek asteburuetan burutzen ziren bereziki. Pelikulak, mendi irteerak, merienak edo jai txikiak, edozein aitzakia zen baliagarria taldetxo bat osatzeko eta elkarrekin larunbat edo igande arratsaldea pasatzeko. Kasu honetan helburuak jolas eta dibertimenduari lotuta zeuden, gunea kalea izatetik lokal parrokiara izatera mugitu baldin bazen ere. Ekintza xume hauen giroa inprobisatua eta ez-formala izan ohi zen, bolondresa eta gauzak egiteko nahiak nagusituz. Helburu eta balore erlijiosoak oinarrian egonda ere, hauek ez zuten pisu handiegirik hartzen. Taldea haur guztien bilgune izatea zen, ordea, indartu nahi zen ideia.

(7) Roser Battle (Escuela de Baix). *La pedagogía básica y la calidad de las actividades de vacaciones: evolución pedagógica y retos actuales*. Simposium Europeo Perspectivas para las colonias y actividades de vacaciones.

Kalean eta elizaren inguruan antolatzen zenaz aparte, aisialdiaren inguruan burutzen ziren bestelako ekimen batzuk aipatu beharko lirateke, besteak beste **kirola eta zenbait kultur jarduera**.

Kirola oihartzun handiko jarduera izan da betidanik. Salbuespen asko egonda ere, kirola edozeinek egin zezakeen aisialdiko jarduera litzateke eta ztertzen ari den hamarkadan ere haur eta nerabeen aisialdian leku garrantzitsua hartzen zuen. Kirol batzuk beste batzuk baino zabalduago egon dira beti eta bertan parte hartzeko aukerak kirol batetik bestera oso ezberdinak izan dira. Dena den, nabardura guztiak egonda ere, haur eta nerabeen aisialdian kirolak orain betetzen duen papera eta orain dela 30 urte betetzen zuenaren arteko aldea oso nabarmena da, aisialdiaren azterketan kontuan hartu beharreko aldagaia bihurtuz.

Kirol munduaz gain, hainbat kultur jarduera aipatu beharko lirateke 70. hamarkadan aisialdiaren inguruan zegoen eskaintzaren azterketa osatzeko. Jarduera horiek aski ezagunak eta zabaldua egon arren, giza multzo bati murriztuak egon ohi ziren, esate baterako musika, dantza eta atzerriko hizkuntzak. Garai hartan jarduera horiek garatzeko tokiak eta profesionalak gutxi eta gehienetan garestiak zirela kontuan hartzekoa da. Hori dela eta, ekintza horiek jarduteko aukerak ahalbide ekonomikoak zituztenen eskuetan zegoen bakarrik, beste askok ahalegin ugari egin ondoren eskuratzen bazituzten ere. Hala eta guztiz ere, jarduera kultural horietan zegoen eskaintza –egun dagoenarekin alderatuz– ez zen inolaz ere zabala, bertan lantzen ziren ikasgai edota metodoak gutxi batzuk baitziren.

Orain arte esandakoa esanda, azpimarratzekoa litzateke aztertutako hamarkadan zegoen eskaintza antolatuaren urritasuna, egoera horren aurrean kaleak hartzen zuen protagonismoa eta pisua nabarmena zelarik. Horretaz aparte, elizaren inguruko zenbait ekintza, kirola eta musika, dantza, eta hizkuntza-ikaskuntzaren inguruko eskaintzek osatzen zuten aisialdiaren panorama. Horrek landu gabeko eremu zabal bat aurkezten zuen: “dena egiteke zegoen”. Interbentziorako esparru zabal horren aurrean aukera asko agertzen ziren, baina horrekin batera zenbait mehatxu eta ahulezi agerian gelditzen ziren: besteak beste, bitarteko material falta eta, batez ere, aisialdiaren inguruan mugitzen ziren antolatzaileen esperientzia eta formazioaren gabeziak.

b) 70. hamarkadaren amaiera eta 80. hamarkadaren hasiera. Udaleku eta kanpamentuen antolaketak sortarazi zituen giza baliabide eta azpiegitura organizatiboekin aisialdiko talde edo klub egonkorak sortu ziren. Garai hartan **ilusio eta gogo handiko momentua bizi zen** osatzen ari zen aisialdirako eskaintza eta mugimenduaren inguruan. Zentzu horretan aldaketa nagusia aisialdiko taldeen osaketan kokatuko zen, ordura arte intuitiboki eta era informal batean lanean aritzen ziren zenbait talde era antolatuan osatzera eta funtzionatzera pasa baitziren.

Praktikan ezberdintasun handia ez baldin badago ere, planteamenduetan eta helburuetan zenbait berrikuntza sumatzen dira. Esate baterako, **eliza inguruan murgiltzen ziren zenbait talde parrokiak aisialdiko talde kontsideratzera pasatzen dira**, pausu horrek helburu, dinamika nahiz egiturari dagozkion hainbat alderdi aldatuz. Haur eta nerabeen aisialdia lantzeko asmo berberarekin **zenbait ekimen laiko sortzen ari dira**. Elizak egiten duen eskaintzarekin parekatu nahian, aukera laikoa osatu beharra aldarrikatzen da, bi asmo horien arteko puntu komunak asko izanda ere.

Lehenengo aisialdiko talde antolatu horietan bolondres eta militantzia giroa nagusitzen da. Era berean, gutxieneko azpiegitura eta antolaketa garatzearekin batera, gizartean orokorrean eta aisialdian bereziki gauzak egiteko sentitzen zen behar hori egituratzeko aukera erreala ikusten da. Horrekin batera, jardueren inguruan garatu beharreko egitasmo eta helburuak aztergai bihurtzen dira funtsezko helburu ludikoei zenbait alderdi hezitzaile gehituz.

Aisialdia, denbora libre, denbora huts izatetik landu eta garatu beharreko denbora izatera pasatzen da, hau da, aisialdia bera helburu bat izatetik beste helburu batzuk lantzeko bitartekari garrantzitsu bilakatzen da. Aisialdiko talde hauen erronka nagusia ingurugiro naturaleko aktibitateetatik urte osoko aisialdi hezitzaile pasatzea izan zen. Helburua ez da izango soilik ondo pasatzea eta aktibitate ludikoak egitea, baizik eta proiektu hezitzaile modu partehartzailean definitzea eta garatzea. Proiektuan egongo dira alderdi ludikoak (ateraldiak, jaiak, musika-saioak...) alderdi kognitiboak (bilaketa esperimentalak, behaketa zuzena...) alderdi etikoa eta erlijiosoa (baloreak, fedea, ebanjelioa) eta alderdi eskuhartzaileak (ingurugiro naturalean, auzoan, herrian...). Proiektuaren iraunkortasunak eta izaera prozesualak konpromiso sendoa eta egonkorra eskatuko die begiraleie zein haurrei. Azken finean, pertsonaren gaitasun eta ahalmen zehatzak landu nahi dira taldearen elkarbizitzan (elkartasuna, partaidetza, konpromisoa, koherentzia, gogoeta eta oharmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna...).

Aisialdi hezitzailearen garapen horren harira, **kirola eta kultur jardueren esparruaren zabalpen progresiboa antzematen da**. Ekintza hauen garrantzia gero eta handiagoa izateaz gain, horien inguruan dagoen eskaintza gero eta oparagoa da, aukeran dauden guneak eta bertan lan egiten duten profesionalen kopurua dezentente handitu ondoren.

Aisialdi antolatuaren zabalpenak aisialdi ez antolatu eta ez formalaren jaisiera progresiboa dakar, eta **kaleak haur eta nerabeen aisialdian zuen pisua gero eta mugatuagoa agertzen da**. Kaleko giroak, ohiturek eta harremanek garrantzi handikoak izanda ere, haur eta nerabeen egunerokotasunean zuten garrantzia murrizten joaten da. Garai politiko eta sozialarekin bat eginda, aisia hezitzaileak ere konpromiso soziala adierazteko lekua eskaintzen zuen, horrek dakarren bizitasun eta aberastasun guztiarekin. Gauzak antolatzeko garaia zen hura, ekintzetarako garaia eta kezka berriei denbora nahiz ahalegina eskaintzeko garaia. Kaleak

momentu hartan jasaten zuen galera horrek ez du beti irakurketa ezkorra izan behar, izan ere, kontuan hartu behar dugu garai hartan gizar teak gauzak antolatzeko eta taldeko dinamikak suspertzeko zuen beharra eta nahia.

c) 80. hamarkada. Aisialdi hezitzailearen garapen eta hazkundea 80. hamarkadan zehar iristen da. Urte horietan aisialdiko taldeen gizarte proiektzioa sendotzen da, beraien egitura, egitasmoa eta helburuak finkatzen diren neurrian. Zentzu horretan, elizaren inguruko taldeen nahiz talde laikoaren egitura eta dinamika areagotu eta Gipuzkoa nahiz Euskal Herri osoan zabaltze prozesu bati hasiera eman zitzaion. Garai hura bizi zutenen ustez, **bolondresen sendotasuna eta formazioaren inguruko kezka ziren talde hauen ezaugarri eta oinarri nagusiak.**

Eskaut taldeak, aisialdiko klub parrokiak eta aisialdiko talde laikoak osatzen duten aisia hezitzaile antolatua sendotzen den neurrian, aisialdiko eskolak sortzen dira, baita koordinadorak eta federakuntzak ere. Horrela, ugaritu egiten dira formazio-ikastaroak eta mintegiak begiraleen etengabeko prestakuntza sustatzeko. Proiektuak eta jarduerak modu landuago batez antolatuko dira: programazioa, plangintza, ebaluaketa (txostenak, behaketarako fitxak, osasun-fitxak...).

Oro har, **aisialdiko talde ezberdinek azaltzen zuten "egonezina" azpimarra daiteke**, horrek dituen alde positiboak nabarmenduz. **Eskaut taldeetan, talde parrokiak eta talde laikoetan gertatzen ari ziren mugimenduak aisialdiaren zabalkunde eta garapenaren seinale eta ondorio lirateke.** Denek, bitartekoak edozein izanda ere, helburu antzekoa dute: haur eta nerabeen aisialdia helburu nahiz eduki hezitzaile sendoarekin hornitzea. Hori era ezberdinetan uler zitekeen eta, noski, era ezberdinen bidez gara zitekeen, baina denek erabiltzaileak giza balore eta talde harremanetan hezte zuten helburu.

Asmo edo proiektu hezitzaileetan oinarritutako talde hauetaz aparte betiko bi agenteak aurkitzen dira 80. hamarkadan aisialdiaren esparruan: **kalea eta beste-lako kirol edota kultur jarduerak. Azken jarduera hauen garapena nabaria zen bezala, kaleak haur eta nerabeen denbora librean betetzen zuten esparrua gero eta txikiagoa da.** Hori zela eta, gero eta zailagoa izaten zen haurren jolasak, abenturak eta harremanak auzo-giroan garatzen ikustea. Alde batetik, jarduera hauek haur eta nerabeen egunerokotasunean gero eta espazio gutxiago betetzen zutelako eta, bestetik, kalea mesfidantza sortarazten zuen lekua bihurtzen ari zelako. Horren ondorioz, gero eta babesgabetutako jolas-toki gehiago antolatzen hasi ziren (ludotekak, haurrentzako liburutegiak, etab.), batez ere hiri giroko tokietan. Bertan beldur antzak sortzen dira kalearen inguruan: drogak, lapurretak edo koadrilen arteko biolentzia esate baterako. Giro horretan kalea haurrak egoteko leku ezegokia eta arriskutsua bilakatzen da.

Kalearen inguruan sortzen ari zen mesfidantza ikusita, espazio horrek haur eta nerabeen arteko harremanak, giroa eta jolas jarduerak garatzeko garaian be-

tetzen zuen tokia beste agente bat eskuratzen hasiko da: ekimen publikoa. 80. hamarkadan sendotuz joango da Udal eta Aldundien ekimena aisialdian: arautu egiten da udalekuen antolakuntza, begiraleen formazioa, udalekuetako egoitzen gutxieneko baldintzak eta diru-laguntzeen banaketa. Horretaz gain, erakunde publikoek eskuhartze zuzena egingo dute euren eskaintza propioa garatuz: udalekuak, lan-eremuak eta ekipamendu finkoak (haurrentzako liburutegiak, ludotekak, haur-txokoak, gaztelekuak...). Azpimarratzekoa da aisialdiko taldeetan ibiltako batzuk administraziora pasako direla, horrek dakarren liderren galerarekin. Bestaldetik, baliabideen aldetik sendoagoa den eskaintza publiko horrek lehia-efektua izango du aisialdiko taldeen jardueran; begirale askok bikoiztu egingo dute euren lana, udaleku publikoak lan ordaindua egiteko aukera ematen baitie. Oro har, erakunde publikoen eskuhartzeak eragin handia izango du maila ezberdinetan: arauketa, ekipamenduak, formazioa, informazioa... 80. hamarkadaren erdialdetik aurrera, aisialdi hezitzaile antolatua sendo finkatua dagoenean, debate bizia sortzen da boluntarismoaren aldekoak eta profesionalizazioaren aldekoen artean.

Zenbait elkarrizketatuk behin eta berriro azpimarratu duten moduan, ekimen publikoaren agerpena inflexio puntu bat izan zen aisialdiaren munduan. Eskuhartze horrek aisialdirako azpiegiturak, egitasmoak eta giza baliabideen hazkunde nabaria dakar, eta aisialdirako eskaintzaren zati handi bat beraien eskuetan gelditzen da. Eskaintza mota honek harrera ezin hobea ezagutuko du, erabiltzaileen konfidantza erraz bereganatuz. Ekimen publikoak aisialdia antolatzeke eta kudeatzeko jartzen zituen baliabideak eta bitartekoak asko ziren. Horretaz gain, agente honek etorkizunean aisialdiaren arloan hartuko duen pisua eta bolumena ulertzeko, erabiltzaileek izaera publiko horri alde aurretik ematen zioten sinesgarritasuna garrantzitsua litzateke. Horren guztiaren ondorioz, esan daiteke ekimen publikoak 80. hamarkadarako berezko tokia hartu duela, ondorengo urteetan izango zuen zabalpena iragarritz.

d) 90. hamarkada. Agenteen ibilbidean markatutako azken etapa honek gaurko panoramaren berri ematen du. XX. mendeko azken hamarkadak agente eta eskaintzaren dibertsifikazio zabala ekarriko du. Aisialdi hezitzailearen ibilbide historiko honen hasieran (70. hamarkadan) zegoen hutsunea azpimarratzen bagenuen, egun, aisiaren esparruan dagoen eskaintzaren ugaritasuna da azpimarratu beharrekoa. Txostenaren hurrengo ataletan dibertsifikatze horren berri zehatza emango badugu ere, ikus ditzagun aisialdi hezitzailearen bilakaeraren honen baitan zeintzuk diren 90. hamarkadan egon diren nobedaderik esanguratsuenak.

Lehengo eta behin, joera berriak aurkituko ditugu betiko aisialdiko taldeen baitan; batzuk federazioarekiko edota parrokiarekiko lotura galtzen dute eta modu autonomoan jarraitzen dute diru-laguntza publikoak erabiliz. Horrekin lotuta, kale-animaziorako talde eta enpresa txikiak sortzen dira aisialdiko taldeen begiraleen ekimenez.

Bestaldetik, zerbitzu-enpresa sendoagoak ekipamendu komertzialak zabalzen dituzte haurren denbora liberako (*Txiki-Park, Camelot, Happy-Park...*). Udako jardueretan ere zabaldu egiten da eskaintza udaleku espezializatuekin (ingeleza, informatika edo kirol batean trebatzeko antolatua).

Aldi berean, euskararen inguruko talde eta elkarteek lehenetsun handia emango diote aisia eta hezkuntza ez-formala euskalduntzeari. Izan ere, hezkuntza formala euskalduntzen doan neurrian gero eta kezka nabarmenagoa bihurtu da (gurasoentzat ere) eskolaz gain haurraren gainerako esparruetan euskaraz aritzea. Horrela, euskara elkarte ezberdinetatik aisialdiko taldeak osatzen dira helburu linguistikoak eta aisialdiko jarduerak bilduz.

Baina 90. hamarkadan dagoen berrikuntzarik adierazgarriena ikastetxeei dagokiena da; eskolaz kanpoko jardueren antolaketak gero eta garrantzi handiago hartuko du (kirolak, kultur jarduerak, tailerrak, txangoak, ikastaroak...). LOGSE legegaren eskutik, ikastetxe bakoitzean definitu beharreko proiektu hezitzaileak ingurune sozial hurbilean txertatzeko borondatea azalduko du, beti ere, hezkuntza integrala edo orobatzailea eskaintzeko asmoz (eduki kontzeptualez gain, eduki prozedimentalak eta jarrerazkoak ere kontuan hartzen dira). Beherakada demografiakoak eta, ondorioz, haurrak eta gurasoak erakartzeko dagoen lehiak, zerikusi zuzena du ere ikastetxe ezberdinetan zabalduko den hezkuntzazko eskaintza osoa eta zerbitzu osagarriak eskaintzeko joerarekin.

Aisialdi hezitzailearen egungo egoera definitzeko garaian adostasuna da nagusi bere partaide eta dinamizatzaileen artean: **aisialdiaren arloan aitzindari izandako mugimendu hau erronka berrien aurrean aurkitzen da eta horietara egokitzeko bidea aurkitu beharko du bizirik eta osasuntsu iraun nahi badu**. Orain arte inertzia nagusitu da eta ahalmen eskasa erakusten ari da egungo egoerari erantzuteko. Ezintasun horren adierazleak maila ezberdinetan ikus daitezke, besteak beste, jarduera eta ekintzen egitasmoetan, hartzaille edota bezeroen kopuru eskasengan zein egitura eta antolaketa ereduak. Azken urteotan, hiru maila hauetan zein besteetan dinamika, joerak, eta beharrak asko aldatu direla argi dago; ondorioz, sortutako egoera berri horretara egokitzea litzateke aisialdiko talde hezitzaileen erronka nagusienetarikoa bat.

Elkarrizketatuek lan handia aurreikusten dute aisialdi hezitzaile taldeek egokitze-ahalegin hori aurrera eramanez ahal izateko. Dena den, azken urteotan mota honetako taldeetan egon diren mugimenduak azpimarratzekoak lirateke. Mugimendu horien ondorioz, **ohiko aisialdiko talde hezitzaileen artean banaketa eman dela esan daiteke. Alde batetik betiko aisialdiko taldeak daude, bestetik, zenbait aisialdiko talde berrien agerpena nabarmendu behar da**. Bi talde mota hauen arteko ezberdintasun nagusiak eta bakoitzari dagozkion ezaugarri bereziak ez dira orain aipatuko, hurrengo atalean sakonduko baita horretan bereziki. Dena den, momentuz banaketa horren inguruan zenbait elementu nabarmendu nahi ditugu.

Hasteko, betiko aisialdiko taldeen egoera eta dinamikari erreparatzen bazaio, jatorri ezberdineko taldeak gero eta gertuago daudela esan beharko litzateke. Horren ondorioz, egun eskaut taldeen, parrokiako talde nahiz talde laikoen egoera parekoa dela azpimarra daiteke, beraien arteko ezberdintasunak egunerokotasunean gero eta txikiagoak izanik. Betiko aisialdiko talde multzo honen parean, aisialdiko talde berrien agerpena nabarmendu beharko da, egun lortu duen esparru eta onarpenagatik batik bat. Talde mota honek betiko aisialdiko talde hezitzaileek garatu izan dituzten hainbat helburu, baliabide eta dinamika bereganatu baditu ere, aisialdiaren inguruan egun sortutako nahi eta beharrei bereziki erantzuteko jaiotzen dira. Hori dela eta, beraien erronka helburu tradizional horien eta egungo eskaeraren arteko uztarrria topatzea litzateke.

Aipatu bezala, aisialdiaren panoraman, aisialdiko talde hezitzaileekin batera, ezagunak diren beste agente batzuk topatzen ditugu. Horietako bakoitzaren egoera aztertzen bada, beraien arteko ezberdintasunak ikus daitezke. Esate baterako, **ekimen publiko eta kirol nahiz kultur jardueren hazkundea nabarmena baldin bada, kaleak aisialdirako eskaintzaren esparruan galtzen ari den lekua oso adierazgarria litzateke.** Haur eta nerabeek kalean pasatzen duten denbora gero eta eskasagoa da; gero eta gehiago da, aldiz, ekintzetan eta jarduera antolatuetan pasatzen dutena. Aisialdiko ekimen publikoak eta bestelako jarduera horiek duten presentzia gero eta garrantzitsuagoa baldin bada ere, **agente horien parean sortu berri den beste kategoria baten protagonismoa azpimarratu beharko da: enpresa pribatuena, hain zuzen ere.**

Beste zenbait arlotan garatzen ari zen joerari jarraituz, aisialdiko enpresa pribatuen agerpenaren garaia heldu zitzaion Gipuzkoari 90. hamarkadarekin batera. Lurrean bertan tradizio handiko ekimen pribatu eredugarriak edukita ere (Kutxako "*Club Juvenil*" zen eredu pribatuen artean ospetsuena), egun ezagunak diren enpresak azken 10 urteotan sortutakoak direla esan daiteke. Ekimen mota hori berria izanda, lortu duen hedapena eta eragina neurtzeko goiz dela esaten da behin eta berriro. Hori onartuta ere, enpresa pribatu hauen existentzia ukazina da, eta zenbait dinamika berriren protagonista dela azpimarratu behar da. Ekimen horrek bere tokia hartu du, haur eta nerabeen aisialdiaren esparruan dagoen eskaintzaren zabalpenari lagunduz.

Orain arte aipatutakoa laburbilduz, azken hamarkadetan aisialdiak bizi duen garapena ikusgarria izan dela esan daiteke, agertu diren dinamika berriak, protagonista berriak, asmo eta helburu berriak anitzak izanik. Horren guztiaren ondorioz, haur eta nerabeen aisia guztiz birmoldatu egin dela esan daiteke, eta horrekin batera, eskaintzaren ezaugarriak eta bertan parte hartzen duten elementuak. Eskaintza urria eta mugatua izatetik, eskaintza ugaria eta anitza izatera pasa da. Bolondresean eta ilusioan oinarritutako eskaintza bat izatetik, soldatapeko, formazio eta profesionaltasunean oinarritua izatera pasa da. Azkenik, eskaintza sinplea eta erreplikakorra izatetik, ikusgarria eta malgua izatera pasa da.

Ikusi dugunez, agenteen dibertsifikatze oso joera argia da azkeneko urtetan aisiaren arloan. Eskaintzaren dibertsifikatzeak, aldiz, ez gaitu eraman behar aisialdia eragiten duten beste faktore orokorrako batzuk ahaztera. Izan ere, haur eta gaztetxoan aisialdiaren bizipena oso lotua dago gizartean indarrean daude balore eta lehentasunekin, beraien betebeharrak bizitzeko moduarekin, familiarengandik jasotzen duten ereduarekin, hiri edo herriaren inguruneak eskaintzen dizkien aukerekin, edota teknologia berrien erabilpenarekin. Hortaz, aisialdiaren azterketak kontuan hartu behar du gizartean indarrean dauden zenbait dinamikak haur (eta helduen) aisialdian daukaten eragina.

1.3. EGUNGO EGOERA OROKORRA


Arestian aipatu bezala, lehenengo begiratuan, edozein konturatu daiteke dela urte batzuetako eta gaur egungo egoera, aisialdiari dagokionean, ez datozela bat. Haur eta gaztetxoan aisialdiari so eginez bereziki, aisiaren denbora, aisiaren bizipenak zein aisiarako jarduerak aldatuta ageri zaizkigu.

Atzo eta gaur, haur eta gaztetxoan aisialdia eskola denboratik kanpoko denbora bezala ulertzen da. Denbora libre horretan haur eta gaztetxoek kalean jolas libreak ematen zuten denbora gutxitzen joan da eta, berriz, eskolaz kanpoko formazio akademikoari eskainitako tartea handitu egin da. Horrela, gaur egun, orain dela urte batzuk ez bezala, haur eta gaztetxoan aisialdia nolabaiteko betebeharrak eta formazio gehigarriak hartuta daukate. Beraien egungo aisialdiaren esanahia "Denbora librea + Askatasuna + Gozamina" hitz-hirukotearen esanahiarekin ez datoz erabat ados. Denborari dagokionez, oraindik orain, haur eta gaztetxoan aisialdia ezinbesteko eginkizunetatik (eskolakoak) aparte gelditzen den denbora da. Askatasunari dagokionez, nahitaezkoak ez baldin badira (aukerazkoak) aisialdian egitekoak, askatasunaren esparru bezala ere uler daiteke; baina haur eta gaztetxoek aisialdian egiten dutena beraien nahietatik aldentuta ere egon daitekeenez (gurasoen nahiak nagusitzeagatik), erabateko askatasuna ez da beti ziurtatzen. Gozaminenari dagokionean, derrigortasun mailak gora egin ahala gozamina gutxitzea lekarke.

Arrunta da oso, haur eta gaztetxoak behin eskola-orduak atzera utzitakoan, eskolaz aparteko zereginak izatea betetzeko. Besteak beste, hizkuntzak direla, musika eta informatika direla, edota kirola eta aparteko eskolak direla, haur eta gaztetxoei betebeharrak berriak egokitzen zaizkie, eskolaz gain, aurrera ateratzekoak. Guzti honek, eskola-denbora ez den eta aipatutako zereginetan aritzeko denbora ez den, bestelako denbora murriztea ekarri du; antolatua ez den denbora murriztea, alegia. Bide honetatik, Gipuzkoako haur eta gaztetxoan aisialdian, behinik behin, betebeharrak eta formazio erantsiari eskainitako denbora gehitu egin da azken urteetan.

Aisialdia nolabaiteko betebeharra bilakatu dela esaterakoan, bi esanahi erantsi nahi dizkiogu baieztapen horri. Alde batetik, aisialdiko denbora "bete" edo

“okupatu” beharra sumatzen dela gaur egun; eta bestaldetik, betebeharrekoak gaztetxoarentzat behar edo lan berriak direla. Bateko eta besteko, kaleko jolas libreak ez du gaur egun lehenagoko presentzia.



Jakina da, gure ingurunekeo gizarteak era eta neurri ezberdineko aldaketak ezagutu dituela azken urteetan (biztanleriaren gutxitzea, lan-arloko espezializazioa, sekularizazioa, indibidualismoa...). Aisialdiaren arloa gizarte-bizitzaren esparru bat izanik, berak ere aldaketak jasan ditu. Aldaketen ingurumarian, helduen munduari erreparatuz gero, ez ditu orain urte batzuk zuen erreferente berdinak; izan ere, gizarte aldaketek isla izan dute helduen bizieran. Besteak beste, aldatu dira familia osatzeko pentsamolde eta denborak, lanari eskaintako zentralitatea, auzo bizitza...Ezinbestean, norabide aldaketa haurren mundura ere iritsi da; eta horrela, helduen mundua gero eta antolatuagoa eta esparrutan banatuago dagoen heinean, haurrena beraiena ere, gero eta antolatuagoa ageri da.

Gaur egun Gipuzkoako heldu eta gaztetxoek aisialdiaren munduan agertzen zaizkigun hiru ardatzen berri emango dugu, aurrerago, aldaketen norabidea zehaztera pasa baino lehenago.

- Egun, aisialdia antolatu beharreko denbora bihurtu da. Orokorrean denborearen bizipenean eta erabilpenean eman diren aldaketen eraginez, eguneko orduak ordutegi eta programazio finko baten menpe kokatzeko joera nagusitu da. Joera horrek lanorduetan eragina izateaz gain, gainontzeko denbo-

raren antolaketa ere islatu da. Hori dela eta, betebeharreko jardueren artean bai lanari bai denbora libreari dagozkionak sartzen dira, bi arlo horien arteko banaketa nabarmenik egin barik. Batak eta besteak dinamika antolatua eta planifikatua daramate.

- Aurreko ideiare lotuta, aisialdia eginbehar gabeko denbora izatetik, okupatu edota betebeharreko denbora izatera pasa da. Aisialdia eskola, lan esparru edota eginbehar ezberdinetatik kanpo gelditzen den denboratzat jo ohi da. Denbora hori atsedean hartzeko nahiz erlaxatzeko izan da baliagarria. Beste batzuetan, denbora hori lehentasunezkoak ez diren zereginetarako erabili da, soberan gelditzen zen denbora horrekin disfrutatu eta gozatzeko asmoarekin. Egun, jendea libre gelditzen den denbora horren beldur ote dagoen galdetzen diote zenbaitek beren buruari, izan ere, gizarateak aisialdia betetzeko eta okupatzeko demaseko grina erakusten baitu. Batzuen ustez, jendeak denbora libre hutsik ikusten badu ondasun preziatu bat galtzen ari dela uste du, eta ondorioz, denbora libre aprobeztatu beharreko denbora dela dio.
- Azkenik, eta aurreko ideiek agerian utzi duten bezala, egun aisialdia ekintzarako denbora bihurtu dela azpimarratu beharko litzateke. Egun, aukeran dauden ekintzak asko dira: kirola, formaziorako jarduerak, jolas antolatutakoak, etab. Hori horrela, berdindio zein den azkenean aukeratzeko den aisialdirako eskaintza, garrantzitsua aisialdi hori antolatzea da, okupatzea eta aprobeztatzea, hau da, zerbait egin behar izate dinamika hori luzatzea. Argi denez, denbora libre ekintzaz bete beharreko denbora bihurtuz joan da.

1.3.1. Aisialdiaren arloko aldaketen nondik norakoak

Aldaketetaz dihardugula, aisialdiaren alorrean bizi izandako aldaketen norabidea irudikatzen saiatu egingo dugu segidan. Xehetasunetan sartzeko asmorik gabe, nagusiki zer izatetik zertan bihurtzen ari den zehaztu nahi dugu.

- **Kaletik talde antolatuetara.** Aipatu bezala, atzera begiratuz gero, kalea ageri zaigu aisialdiaren espazio eta berezko kokaleku gisara. Gaztetxoak bilatu beharra izatekotan behin eskolatik aterata, kalean aurkitzea zen arruntena, auzo inguruko gainerako gaztetxoekin, honetara edo hartara, jolasean. Egun, berriz, espazio horretan aurkitzea posible bada ere, askoz zailagoa suertatzen da, besteak beste, kaleen itxuraldatzea dela medio. Ohizkoagoa da gaztetxoak talde antolatuen baitan aritzea eskolatik kanpo, hain justu, kale girotik babestuta.
- **Auto-antolaketatik antolatutakora.** Jolas librerako denbora zen, batik batik, lehenagoko haur eta gaztetxoentzako aisialdia. Beraiei zegokien erabakitzea zertara eta nola aritu; sormenerako eta auto-antolaketarako unea zen eskolako eginbeharretatik kanpo gelditzen zena. Gaur egun, ordea, "egiteko"

berrien denbora izatera pasa da hein handi batean aisialdia. Haur eta gaztetxoek lan gutxiago daukate eskolatik aterata zer egingo duten pentsatzen, dagoeneko antolatuta baitute handik kanpoko zeregina ere. Gainera, egiteko berriak programatuta dituzten heinean inprobisazioak eta bat-bateko jarduerak gero eta leku gutxiago dute.

- **Ardura gabekoa izatetik okupazio denbora izatera.** Ideializatzeko asmorik gabe, egungoarekin kontrastatu nahian baizik, lehenagoko aisiarako denbora okupazio eta ardura gabeko denbora bezala irudikatu daiteke. Eskolako zereginak aurrera aterata, lagun-girorako eta jolaserako denbora zen aisialdia, batik bat. Orain, aldiz, neurri handi batean okupazio denbora da aisialdia; eskolatik aparteko eginbehar eta ardura berriei aurre egiteko denbora (musika, margolaritza, dantza, entrenamendua, hizkuntzak...). Lehenago ere baziren horrelakoak egiten zituzten gaztetxoak, baina gutxi batzuk izatetik, egun, gure ingurunean, gehienak izatera pasa da. Aisialdian eginbehar ugari izatearena gizarte-maila ia guztietako neskato-mutikoen ezaugarria bilakatu da, sozioekonomikoki goi-mailakoenetatik hasi eta behe-ertainekora arte.
- **Iraupen luzeko proiektuetatik ekintzetara.** Aisialdiko talde edo elkarrekin antolatutako aisi jardunari dagokionean, ordukoak iraupen luzeko proiektua zuten ardatz; gaztetxoek eta gaztetxoekin urteetan zehar ekintza eta jardueren bitartez lantzen zutenak elkarbizitzaren esperimentazioa izan nahi zuten. Beste era batera esanda, aisialdiko taldeek gaztetxoarentzat "bizitzaren eskola" izan nahi zuten. Gaztetxoei ekinak sortzen dizkien bizipenak esperimentatzeko aukera eskaintzen zitzaizkien. Gaur egun, aisialdian ari diren agenteek, batzuk proiektu integrala dutenak badira ere, nagusiki, ekintza zehatzetan aritzen dira, ekintzatan espezializatzen direla ere uler daiteke. Etor-kizunari begira zertan izan daitezkeen trebeak (espezialistak) frogatzeko bideak ibiltzeko modua eskaintzen dute egungo aisialdiko agenteek (dantza, musika, margolaritza).
- **Eliza giroko ekimenetatik, ekimen laikoetara.** Atzera begiratuz gero, Eliza eta sinismenaren inguruko ekimenak –ebanjelizatze lanean katekesiari jarraipena eman nahian...– (Eskultismoaren mugimendua inondik inora ahaztu gabe) izan dira aisi hezitzailearen arloan lanean aritu direnak. Egun berriz, gizartearen beraren eta aisialdiaren sekularizazioa dela bitarte, formazio akademiko erantsiaz gain, ekimen laikoak nagusitu dira (kirola, dantza, musika, ludoteka...), eta horren eskutik, eliza giroko taldeak indarra galduz joan dira, eliz-taldeak zenbakitan ugari izaten jarraitzen badute ere.
- **Haurra sortzaile ere izatetik, sortutakoaren hartzaila izatera.** Esandakoaren harira, lehenagoko aisialdiko taldeetan haur eta gaztetxoaren heziketa integrala zen bilatzen zena. Haurren sormena eta ekimena estimulatzeko moduko jarduerak lantzen ziren, zeinetan gaztetxoak berak definizioan eta

antolaketan ere parte hartzen zuen. Gaurkoan berriz, gaztetxoak dagoneko sortuta eta antolatuta dauden zereginen hartzaile dira, neurri handi batean.

- **Baloreen lanketatik trebatze-lanetara.** Aisialdi antolatuak bete nahi zituen funtzioak zehazten hasita, esan genezake, baloreak landuz garapen pertsonalaren aldeko lana egitea, eta horrekin batera, funtzio ludikoa betetzea hartzen zituen bere gain. Gaur egungoak, ordea, funtzio horietaz aparte, beste bi funtzio ditu: nolabaiteko formazio edo trebatze funtzioa eta zaintza funtzioa. Aisialdiko agenteek gaztetxoak ondo pasa dezan nahi du, eta horretarako jolasa ere eskaintzen zaio. Baloreen lanketa ere helburu izan liteke, batzuen kasuan gehiago eta beste batzuen kasuan maila eskasean. Baina nagusitzen ari direnak trebakuntza helburuak dira, zaintza helburuekin batera. Hau da, umea zaindua egotea zerbait ikasi edo zerbaitetan trebatzen den bitartean.
- **Denbora ematetik denbora okupatzera.** Antolatutako aisialdiko ekimenek haur eta gaztetxoekin denbora "eman" ematen zuten, jakinik gainera, ume horrekin batera bide luzea zegoela egiteko ondoko urteetan. Egun, berriz, aisialdiko ekimen antolatzaileek, eskaera soziala horixe izatearen ondorioz, haur eta gaztetxoekin denbora "hartu" egiten dute, okupatu eta bete, alegia. Guraso askoren ikusmoldetik, haur eta gaztetxoekin denbora libre izatea segurtasun falta eta arriskuarekin parekatzen baitute.
- **Musutrukeko lanetik ordaindutako lanera.** Aisialdiko taldeetako kideei dagokionean, denboran atzera eginez gero, musu truk zihardutenak osatzen zuten lantaldea; militantzia edo aldeko gogoia zen beraien lan esker-garen sostengu, eta izan ere, taldearekin sendo konprometitutako pertsonak izanik, salbuespenak salbuespen, luze aritzen ziren aisialdiko taldeetan lanean. Lana planteatzeko moduari zegokionez, soslai horretako pertsonak aitortu dutenez, intuizioa zen sarri askotan egingo zen lanaren oinarri eta argudio. Urteak pasa ahala, aldiz, aisialdiko taldeetan lanean bolondres ari diren pertsonak egoten jarraitzen dute, baina, horietaz gain, haur eta gaztetxoentzako aisialdiko jarduerak ogibidez edo lanbidez antolatzen dihardutenak gehitu dira.

Edozelan ere, taldearekiko konpromiso mailak behera egin du, denboran zein intentsitatean. Egun, aurrez zehaztutako denbora tartetean aritzen dira aisialdiko taldeetako partaideak, eta gainera, beraien bizitza-denboraren tarte mugatuago batean. Aurreko garaiekiko beste alde bat formazioari dagokiona da. Antolatutako ekintzen definizioaren oinarria intuizioa eta ondo egin nahia baldin bazen lehenago, orain, jasotako formazioa da ardatz. Izan ere, taldeetako partaide guztiek (edo ia guztiek) aisialdiko begirale edota aisialdiko zuzendari ikasketak edukitzea da ohizkoena.

	LEHENAGO	ORAIN
NON? KOKAPENA	GUNE KOMUNITARIOAK (KALEA, AUZOA, ELIZA, ETAB)	GUNE FORMALAK, ARAUTUAK (IKASTETXEA, AKADEMIK...)
ZERTAN? EDUKIA	JARDUERA LUDIKOAK GIZA BALOREEN LANKETA TALDE HARREMANAK	FORMAZIOA ESPEZIALIZAZIOA ("IKASGAIA")
ZERTARAKO? FUNTZIOA HELBURUA	HAURREI AUKERAK ZABALTZEA: BERAIEI NAHI ETA BEHARRETARA	GURASOEN BEHARRETARA

Aurrez esandakoa sintetizatu nahian, esan genezake aisialdi antolatuan suertatutako aldaketa orokorrak hiru planotan antzeman genitzakeela. Bata, aisialdiaren **Kokapena**ri dagokiona; bigarrena, **Edukiari** dagokiona, eta, hirugarren bat **Funtzio edo helburuei** dagokiona.

- **Kokapena** aipatzen dugunean, aisialdian haur eta gaztetxoek espazioa zein den da aztertzen duguna. Horrela, lehenago gune komunitarioak (kalea, auzoa, eliza, etab) ziren aisialdiko jardueren erreferente espaziala; haur eta gaztetxoak bertara biltzen ziren, aisiako denbora gehiena bertan emanaz. Oraingoan, gune formal eta arautuak dira aisialdiko jardueren ekintza-leku; hartara, ikastetxearen inguruko aisialdia, kiroldegian egiten dena, musika-eskolan edota bestelako akademietan biltzen dira haur eta gaztetxoak.
- Aisialdiko jardueren **edukiari** so eginez, aurreratu bezala, aisi hezitzailearen barneko jarduera ludikoek giza baloreen lanketa bilatzen zuten, beti ere, talde harremanei garrantzi handia emanaz. Ez da hori gaur egun aisialdiko antolatzaileen ezaugarri nagusia, ordea. Gehiago dira formazio aukerak edota espezializatze bideak eskaintzen dituzten aisialdiko agenteak, giza baloreen lanketaz arduratzen direnak baino. Formazio akademiko kutsua duten "ikasgai" berrien ugaritzea ezagutu du haur eta gaztetxoek aisialdi antolatuak azken urte hauetan.
- Edukiarekin ezinbestean lotuta, ageri zaizkigu **funtzio edo helburuak**. Haurrei berezko inguruneak eskaintzen ez zizkieten aukerak zabaltzea bilatzen

zen antzina aisialdiko antolatzaileen aldetik (udalekuak ingurune berriak ezagutzeko,...); guzti hori, haur eta gaztetxoek nahi eta beharrak kontuan hartu eta baloratu ondoren, pertsona osatuagoa egite bidean, ingurune hurbilak eskaintzen ez zizkien aukerak emateko helburua bere egiten zuten. Gaurkoan, aisialdiko agenteen funtzio eta helburuen definitzaile nagusia, behin baino gehiagotan, gurasoek dituzten beharrak direla esan genezake (zaintza eta formazio osagarria). Askotan, gurasoengan pentsatuz bideratzen da aisialdiko antolatzaileen jarduna; joera bihurtzen ari da gurasoak asebeste nahi izatea haur eta gaztetxoentzako aisialdiko jarduerak antolatzeko garaian.

Hurbilpen orokor hau egin eta gero, hurrengo atalean modu zehatzagoan aztertuko dugu aisiako eskaintza modu bakoitzak nolako ezaugarriak dituen eta aisiako agente ezberdinek nola planteatzen duten beraien lana.